



ESKORIATZA

ZE BARRI?

URLATIK • LANDETARA



GATZAGA

18. Alea 1998ko Martxo

- Elkarrizketa :
Epilepsia Rock
taldea
- Gazteen mendi
irteerak Pedro
Apraizekin
- 98ko Insumiso
eguna



PARKE EOLIKOA ESKORIATZAKO MUGAN ERAIKITZEKOTAN

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eskoriatza

Udaletxea 714407
 Udal Bulegoak 714532
 Udaltzaingoa 714407
 Euskaltegia 792168
 Kultur-Etxea 714688
 Gizarte-Laguntzailea 714688
 Kiroletxea 715328
 Liburutegia 714688
 Luis Eceiza 714938
 Jose Arana-Almen Ikastola 714486
 Almen 714964
 Museo-Eskola 714688
 Ze Barri 714077
 Talde Antimilitarista 715028
 Irakasle Eskola 714157
 Osakidetza 714452
 Telesko 714917
 Taxia 714059

Bestelakoak

Eskualde-Ospital (Arrasate) 795300
 Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
 Ertzaintza (Arrasate) 797199
 Suhiltzaileak (Oñati) 792800
 Renfe (Zumarraga) 721515
 Renfe (Gasteiz) (945) 232030
 Pesa (Arrasate) 791419
 Larrialdiak (Arrasate) 771043
 SOS Deiak 088

ZE BARRI?

Argitaratzailea:
AXTROKI KULTUR ELKARTEA

Erredakzio kontseilua: Joseba Rielo, Josu Azkarate, Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa, Lorea Agiriano.

Kolaboratzailea: Iñaki Agiriano.

Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.

Tirada: 1.500 ale

“ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin”



ESKORIATZAKO UDALA
 Euskara Batzordea

Aldizkari honek Udaletxearen laguntza jasotzen du

EPILEPSIA

Eskoriatzako Rock Taldea

1- Ze instrumento jotzen du zuetako bakoitzak?

Bajua: Ibai Aranburuzabala
 Bateria: Lur Arana

Gitarra: Iker Martinez de la Hidalga
 Abeslaria: Unai Kortazar

2- Noiz sortu zenuten taldea?

Orain dela urte eta erdi.

3- Entsaizteko lokalik badaukazu?

Bai, goiko kalean.

4- Zenbat ordu jotzen duzue astean?

3 ordu.

5- Zenbat aldiz jo duzue zuzenean?

Irene tabernan, behin.

6- Zenbat taldek entsaiatzen dute Eskoriatzan?

Sei edo zazpik.

7- Zeintzuk dira euskal talderik indartsuenak?

Anestesia eta S. A., eta mundu mailan Ktulu eta Sepultura.

8- Zertan erabiltzen duzue zuen aisialdia?

Futbito jolasten, lagunekin egoten, eta abar.

9- Zer aldaketa egingo zenukete alkate bazinete?

Gaztetxe bat egingo genuke eta gazteentzako gauza gehiago.

10- Zer iruditzen zaizue ZE BARRI aldizkaria?

Ondo, baina motza.



Argazkian Ibai falta da

EMAKUMEEN EGUNA

1.-Zer iruditzen zaizu emakumeen eguna?

2.- Ospatzen duzu emakumeen eguna?



Arantza Ruiz Ruiz

1.- Uste dut emakumeon lana urte guztian zehar baloratu beharko litzatekeela, eta ez soilik egun horretan.
 2.- Ez.



Adeli Kortazar Pagaldai

1.- Egun berezi bat ospatzea emakumeak sailkatzeko era bat dela uste dut eta ez zait ondo iruditzen.
 2.- Ez.



Felisa Oruna Elexpuru

1.- Emakumearen alde egiten den edozer ondo iruditzen zait.
 2.- Ez, ez dut ohiturarik.



Arantza Garro Zabala

1.- Oso ondo dago.
 2.- Ez dut sekula ospatu, beti lanean egon naizelako eta hala jarraituko dut.



Arantza Eizmendi Insausti

1.- Oso ondo iruditzen zait, baina egunero izan beharko litzateke.
 2.- Ez, ez nuen ospatu.



Rita Rodriguez Perez

1.- Ondo dago.
 2.- Ez, ez nuen ospatu, baina hemendik aurrera ospatzea pentsatzen dut.

PARKE EOLIKOA BAI, BAINA NOLA?

Elgea eta Artia mendietan egitekotan diren parke eolikoari buruzko Plan Berezia udaletxean dago nahi duenak aztertzeke. Alegazioak aurkezteko epea apirilaren 12an bukatzen da. Euskal Mendizale Federakundea (EMF) kezkatu proiektu honen aurrean.



Eolicas de Euskadik Elgea mendian eraikitzeke asmoa duen zentral eolikoaren aurreproiektua ikusgai dago udaletxean. Orain, gai honen inguruan alegaziorik egin nahi duenak, apirilaren 12 arteko epea du eta ondoren Eusko Jaurlaritzak erabakiko du zentral eolikoaren arazoa honetan nondik abiatu. Dirudenez, azken dokumearen atal batean *Eolicas de Euskadik* ingurugiroan zentral honek izan dezakeen eraginaz jarduten du.

EMFk ordea, dagoeneko azaldu ditu gai honi buruzko kezkak. Berez, energia berriztagarriaren erabilpena

positibotzat jotzen dute, agortezina eta garbiagoa delako besteak beste. Aitzitik, EAEn ezarri nahi diren 26 zentral eolikoan antolamendu eta kokapenarekin kezkatuta dago mendizaleen elkarteak: *Eolicas de Euskadiren* esanetan <<EAEn 800m.ko altueretan soilik ematen dira zentral eolikoak ezartzeko kondizioak>>, baina horietarik asko babestu beharreko inguru natural zeharo erakargarriak dira.

1995ean Aizkorri inguruko natur baliabideak babesteko plan bat onartu zen, zeinen bitartez, zonalde hau parke natural izendatuko litzatekeen, eta ezingo litzateke zentral eolikorik eraiki. Zentral eolikoaren azpiegiturak (37 bat haize-errota, bakoitza 40m.ko altueraz) leku pribilejiatu hau bidez josi eta guztiz itxuraldatuko luke. Beraz, EMF edota mendia maite duen edonork arrazoi asko ditu proiektuak ekar ditzakeen ondorioengatik urduri egoteko.

Horregatik bidali ditu EMFak Elgeako parke eolikoari buruzko hainbat boletín informatibo, gai honekiko duten jarrera ganoraz argudiatuz. Diapositiba emanaldiak ere eman dituzte eta mahai inguruak ezezik, astero bilerak ere egiten ari dira Deba Garaiko mendi elkarteetan.

MENDI MARTXA ELGEA MENDIRA

Apirilerako mendi martxa antolatu dute Deba Garaiko mendi elkarteek. Ekitaldi honek arrakasta izatea espero dute, jendea zentral eolikoak ekar ditzakeen ondorioak direla eta kontzientziaturik dagoela erakutsiko bailuke.

Zentral eolikoaren gai hau ez dela inondik ere azaletik aztertzeke kontua iruditzen zaiguri ere eta beraz, hausnarke ta sakona merezi duela. Herritarrok aurreproiektua ezagutu egin behar dugu eta horretarako udaletxera jo dezakegu, hemen proiektua ikusgai baitago. Gainera, *Eolicas de Euskadikoak* hitzaldi batzuk ematekotan direla ere jakin dugu.

Bi aldeek, *Euskal Mendizale Federazioak* eta *Eolicas de Euskadik*, hainbat aspektutan postura kontrajarriak badituzte ere, bat datoz jendeak informata egon behar duela esatean, hots, bata zein bestea ezagutu behar dugula. Osterantzean, bere garaian Don Quixote izutu zen lez, aurki gu geu izutu gaitzake Elgea-Artia mendietan ikusiko diren haize-errota erraldoiek.

**Euskal Mendizale
Federakundea zentral
eolikoan
antolamendu eta
kokapenarekin
kezkatuta dago
mendizaleen elkarteak**



BENTA-MOTZ

Gaztañadui kalea
Tfnoa.: 714822

GOIZEKO 6ETAN ZABALIK

EGUNEROKO MENUA 900 PTA.



DORLETA

Aranburuzabala, 22 -bajo
Tfnoa.: 71 51 20

TOKI ALAI

Taberna

Tfnoa.: 714729

KARAJILOETAN
ESPEZIALIZATUA



bedardenda

Tfnoa.: 943 714327

ESKORIATZA

• San Viator erosteko dirulaguntza jasoko du Gizabidek.

Gizabidek, unibertsitate hezkuntza zerbitzuko fundazioak, San Viator etxea erosi du Mondragón unibertsitatetako. Udalak finantziaketan lagunduko dio Gizabideri, martxoaren 4an egindako plenuan bien artean moldatutako konbenioan erabaki bezala. Gizabidek, ordea, 10 urtetan eta interesik gabe itzuli beharko dizkio Udalari, honek, prestamo gisa, utzitako 25 milioiak.

• Arau subsidiarioen aurre proiektua.

Udaletxean jendaurrean egon da arau subsidiarioen aurre-proiektua. Proiektu hau martxoaren 31 arte egongo da ikusgai eta ondoren, bi hilabeteko epea egongo da alegazioak aurkezteko.

Hemendik 10-12 urtetara herri inguruneko antolamendu urbanistikoari buruzko ideiak azaltzen dituzten bi proposamen eman dituzte gai arduraturiko arkitektoek, non parkeak, etxebizitza kopurua, motak, e.a zehazten diren. Beraz, udaletxeari aurrelana aurkezteaz gain, aspektu orokorrak ere pixkat finkatzen dira.



• Jubilatutako etxeko taberna.

Laster zabalduko da "Jubilatu etxeko taberna" José Berdejo Ruiz-en ardurapean. Antolaketa lanak bukatu bezain pronto beraz, izango dira tabernaren ateak berriz ere irekiak.

José Berdejok, San Pedro auzoan "Compostela" tabernako ardura izan du orain-txuarre, beraz, esperientziadun gizona da berau.

• Udaletxea euskalduntze prozesuan aurrera.

Eskoriatzako udalak euskara erabiltzeko planarekin aurrera jarraitzen du. Euskara lan hezkuntza izateko lehen pausoak ematen ari dira langileak, eta plenoak jardun hori bultzatzea erabaki du.

Proiektua "ez da urtero egin beharreko gauzen zerrenda bat, baizik eta beste plan bat" argitu zigun udaletxeko zinegotzia den Asier Sologaitzok, "euskararekin noraino heldu nahi den zehazten duen konstituzio antzeko zerbit" .

• Hilerrria haunditzeko proiektua

Jendaurrean egon zen hilerrriko proiektuak alegazio batzuk izan zituen eta hauei erantzuna eman ondoren, proiektua aurrera eramango dela erabaki dute.

Momentuz falta den bakarra, lurjabeekin negoziaketetan hastea da.


HILERRIKO ALDE ZAHARREAN LURPERAKETAK EGITEA DEBEKATU DA

Osakidetzak, hilerrriko alde zaharrenean lurperaketak egitea debekatu du, lehenago ere auzoketako emendakinei erantzun definitibo emanaz.

• Ze Barrik lokala lortu du

Azkenean lortu dugu lanerako hain beharrezkoa genuen lokala eta materiala. Hemendik aurrera, idatzi ezezik maketatu ere geuk egingo dugu.

Gure bulegoa polikiroldegi berrian daukagu. Bilerak asteazkenero arratsaldeko 7etan egiten ditugu. Proposamenen bat bazenu, badakizu non aurki gaitzakezun.



Zuri Garbiketak

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Tfnoa-Faxa: 714845
ESKORIATZA

Industrias Olabarri, S.A.
Arana, 20 • 20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: 943 715267 - 714272 • Faxa: 34-43 - 714061

TALOGINTZA IKASTAROA



Aitzorrotzeko egunean, eta herriko beste jaietan ere, herriko jendeak taloak egiten parte hartzea da helburua.

Taloak egiten ikasteko ikastaroa eman du Asunek Kultur Etxean eta esan beharra dago arrakasta izan duela. Guztira 28 lagun elkartu ziren eta bi taldetan banatu behar izan zituzten: lehenengo taldea otsailaren 23 eta 24an aritu zen, eta bigarrena martxoaren 2 eta 3an.

Gustora ibili ziren taloak egiten, baina baita talo eta txorixuaz merienda ederrak egiten ere! Argazkiak horren lekuko dira.

III. INTSUMISO EGUNA

Otsailaren 28an inguruko intsumiso guztiak Eskoriatzara etorri ziren intsumisioa aldarrikatzera. Antolaketa primeran egon zen. Festa etxafuegoekin hasi zen eta ondoren trikitilariekin poteoa izan genuen. Bazkarira 100 pertsona joan ziren eta trikitilarien laguntzarekin babak guztora jan zituzten. Bazkaldu ondoren bertso-lariak giro atsegina jarri



Trikitilariak



Poto sukaldariak babarrun ederrak prestatuzituen.

zioa egon zen eta egunari hamaiera emateko INTSUMISIOA lau haizetara zabaldu genuen.

Datorren urte arte, mila ezker denori antolatzaileen aldetik.

zuten. Arratsaldean Eskoriatza beteta zegoen eta orduan tabernetan hasi ziren kontzertuak. Talde guztiak gustora geratu ziren eta berriro etortzeko asmoarenkin joan ziren.

Gaueko 12tan manifesta-



Txarkey taldeak Naira tabernal jo zuen.

EMAKUMEEN EGUNA MARTXOAREN 8an

Eskoriatzan ospatu zen emakumeen eguna. Goizean Erañara joan ziren eta joku batzuk antolatu zituzten bertan. Gero plaza jeitsi ziren eta txalaparta soinuarekin txistorra eta ardoa eskaini zizkieten eskoriatzarrei. Bazkarian jende gutxi egon zen arren (20 pertsona inguru), primeran pasatu zuten. Ea datorren urtean jende gehiago animatzen den.

Esan behar da AMUSKAK zapatuan sagardotegi batera egin zuela irteera bat, eta hau ere oso ondo egon ei zen.

A&B
aholkulariak

Gastañadui, 7
Tel.-Fax. 71 54 36

**LEGEZKOA
FISKALA
KONTULARIA
LABORALA
ASEGURUA**

20540 **ESKORIATZA**
(Gipuzkoa)

ALDETEC



Tel.: 908 - 77 41 33 Tel.-Fax 71 54 36 **20540** **ESKORIATZA**


----- **TASAZIOAK**
----- **PERITAZIOAK**
----- **PROIEKTU ING.**
----- **OBRA ZUZENDARITZAK**
----- **ERREFORMAK**

Gastañadui, 7 - bajo

MENDI IRTEERAK PEDRO APRAIZEKIN

(Kirol elkarteko mendi sailaren laguntzarekin)

Urte hasieratik gazteentzako mendi irteerak antolatzen darabilgu eskoriatzar hau. Honen barri jakiteko berarengana joan gara eta elkarrizketa hauxe egin diogu.



1.- Noiztik sortu zen ideia, eta zein helbururekin?

Gogoratzen dut gaztetxo nintzela Kirol Elkarteak irteerak antolatu eta gero dominak banatzen zituela mendi kopuru bat gainditzen zuten artean. Gauz egun mendian gazte gutxi ikusten nuela eta, Eskoriatzako Kirol Elkarteko Mendi Sailean antzeko ideia aurkeztu nuen; hau da, domina lortuko du haurrak hainbat irteeratan parte hartzen badu. Honekin lortu gura dudana helburu bakarra gazteak mendira hurbiltzea da.

2.- Irteerarik egin al duzue?

Bai, bi irteera egin ditugu jadanik. Bata urtarrilean Bidebarrietatik Mazmelara; ibilbide polita izan zen eta jende askok hartu zuen parte. Luis Eceizaren laguntza ere eduki genuen lehen egun honetan.

Bigarrena Uretz-Mandobide-Mendiola-Lete izan zen. Eguraldi zoragarria egin zuen eta bertaratu ginenok oso ondo pasatu genuen.

Martxoan beste mendi irteera bat egiteko asmoa daukagu. Antzuolan izango den ibilaldi hau neurtua izango da eta bertan beste ikastetxe batzuek ere parte hartuko dute.

Guztira 12 irteera egingo ditugu urtean zehar.

3.- Zeinentzat antolatu dituzue irteerak?

Berez, herriko gazte guztientzat, eta baita beren gurasoentzat ere. Gurasoak motibatzea ere garrantzitsua da seme-alaben mendizaletasuna bultzatzeko.

4.- Parte hartzeko zer egin behar da?

Hilean behin, igandez, goizeko 9etan elkartzen gara herriko plazan. Irteerak herri inguruan izaten direnez, ez dago kotxe beharrik. Halere, badira irteera batzuk kanpora egingo ditugunak, eta hauetarako Kirol Elkartearen laguntza daukat.



5.- Nolakoa izan da parte hartu duten haurren inpresioa?

Irteeratan jokuak egin ditugu eta haurrak gustora ibili dira, baina batez ere, dominaren kontu horrek motibatzen dituela uste dut. Zerbait



berezia da beraientzat. Irteerak amaitzen direnean, sariak herriko plazan banatzeko asmoa daukagu, jai giroan.

Nik ilusioa badaukat eta jendeak erantzuten badu gazteentzat alternatiba interesgarria izan daitekeela uste dut.

HURRENGO IRTEERAK

Apirilak 26.- Bentafria - Jarindo
Maiatzak 3.- Aitzorroitz
Maiatzak 31.- Asensio
Ekainak 14.- Deba - Zumaia, nagusiekin.

ANIMA ZAITEZ

Cuenta Joven
de Caja Laboral
El servicio
más completo.

Euskadiko Kutxaren
Kontu Gaztea.
Zerbitzuetan
osatuena.

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



EROSLE
HARATEGIA,
FRUTATEGIA eta
BESTELAKOAK

Aranburuzabala, 3
Tfnoa. 943 714546

ALDI
JANARI DENDA

Hidalga, 8
Tfnoa.: 943 71 45 42

GAZTE AGENDA

EUSKAL UDALEKUAK

• Izena emateko fitxak jaso ditugu Arrasateko Gazte Bulegoan. Elkarrekin Abaigar, Bernedo, Goñi edo Urdirotzera joan nahi izanez gero, martxoaren 31 baino lehen eman behar da izena.

BEKAK

• EHU-UPVk urtero antolatzen dituen Udako Unibertsitaterako eta Europar ikastaroetarako bekak eskatzeko epea: apirilak 8.

• Deba Garaiko Euskara eta Kirol Zerbitzuen "Kirol materialak euskaraz sortzeko bekak". Epea: apirilak 20.

• Musika, dantza, antzerkia eta zaharberritze arloan espezializazioa burutzeko bekak. Epea: maiatzak 15.

• Arte plastikoa, ikus-entzuzkoa, argazkigintza, literatura eta musika konposaketaren sorkuntza artistikorako bekak. Epea: maiatzak 15.

• "Caixa" Fundazioak, Erresuma Batuan, Alemanian, Estatu Batuetan edo Frantzia, ikasketak luzatzeko bekak. Epea: maiatzak 29.

• Laburmetriak produzitzeko laguntzak. ICCAk antolatuta. Epea: ekainak 23.

LANA

• 7-13 urte bitarteko gazteen-tzako udaleku eta kanpamenduak antolatu, kudeatu eta animazio ekintzetarako programak burutzeko zerbitzuen kontratazioa. Epea: apirilak 6.

• Nafarroako Arangurengo haranerako administrari bat behar da. Epea: apirilak 13.

• Jakinarazle bat behar du Arrasateko Udalak. Epea: BOEn argitaratu zain.

GAZTE IKASTAROAK

• Arrasaten, Hastapen mailako argazkigintza ikastaroa (teoria eta praktika). Larunbatetan, 10.30etatik 1.30etara. Apirilaren 25ean hasi eta ekainaren 6 arte. Matrikula 5.000 pta, 3.000 pta ikasle eta langabetuentzat. Izena emateko Gazte Bulegora jo.

• Irrati kontrol tailerra. Arrasaten burutuko da larunbatetan, arratsaldeko 4.00etatik 6.30ak arte. Apirilaren 25ean hasi eta ekainaren 13an bukatuko da. Matrikula 4.000 pta, 2.000 pta ikasle eta langabetuentzat.

LEHIAKETAK

• "Gaztebideo" lehiaketa, gazteen argumentudun bideo amateurren VI. erakustaldia. 20 minututik beherako iraupena, bideo bakoitzaren partehartzaileen gehiengoak 21 urtetik beherakoak behar du izan. Epea: maiatzak 15.

• Kontakizun laburren III. Lehiaketa, Gasteizko Emakume Sailak antolatuta. Emakumeentzako, euskaraz nahiz gaztelaniaz idatzita eta gehienez 6 orrialdetako luzerarekin. Epea: apirilak 15.

• Lasarte-Oriako XII. Literatur lehiaketa, euskaraz nahiz gaztelaraz idatzitako ipuin edo poesiak. Epea: apirilak 30.

• Zumarraga eta Urretxuko Udalek urtero antolatu ohi duten lehiaketa sorta martxan da jadanik:

• Narratiba eta poesiako Iparragirre Saria, X. Komiki lehiaketa eta XIV. Bertso paper lehialetarako lanak aurkezteko epea: ekainak 19.

• X. Pintura lehiaketa eta Argazki lehiaketa. Epea: irailak 11.

LIBURUTEGIKO LIBURU BERRIAK

6 URTETIK AURRERA

• *Euri-ttanta!* Alfredo Gómez Cerdá. bruño

• *Zergatik ez du kantatzen txantxangorriak?!* Xabier Mendiguren. Elkar.

• *Sara* / Tony eta Zöe Ross. Tarttalo.

• *Ruperen errebotatuta* / Esteban Martín. Edebé.

• *Puf! Hau nazka* / Esteban Martín. Edebé.

8 URTETIK AURRERA

• *Iratxoak* / Juan Frarias. Aizkorri.

• *Bota ura!* (Nire terrazatik) / J.K Igarbide. Edebé-Giltza.

• *Primerako eguna!* / M. Terzi. Edebé-Giltza

• *Ahatetxoa eta sagats negartia* / Mariasun Landa. Elkar

• *Mostaza pila bat mesedez* / M.L. Alonso. Edebé-Giltza

10 URTETIK AURRERA

• *Sardina latak sirena* / Gudrun Pausenwang. Anaya Haritza

• *Gau, gau, gau* / Igerasoro. S.M.

• *Zer gertatzen da kuku barruan?!* / J. Gorriz. Desclée de Brouwer

• *Ikasplanaren beldurra* / T. Brezina. Desclée de Brouwer

• *Aitatxo balkoian dago!* / Seve Calleja. Desclée de Brouwer

12 URTETIK AURRERA

• *Katuak bakar bakarrik sentitzen direnean* / Mariasun Landa. Anaya Haritza

• *Pirata jokua* / Seve Calleja. Elkar

• *Suiziden elkarteak* / R.L. Stevenson. Elkar

• *Jette* / P. Hartling. Elkar

• *Din, dan, don... kanpai lapurrak non* / Pako Aristi. Elkar

HELDUENTZAT

• *Arian ari* / Patxi Zabaleta. Txalaparta.

• *Koaderno handia* / Agota Kristof. Alberdania

• *Poema antologia* / Ch. Bukowski. Sua

• *Kilkirra eta roulottea* / Joxemari Iturralde. Erein

• *Kristo ebolin geratu zen* / Carlo Levi. Alberdania

• *Baleen barbaroa* / Edorta Jimenez. Txalaparta

JAIOTZAK

Asier Urcelay Fernandez de Arroyabe
1998ko otsailaren 23an.

AGENDA

Maiatzak 3: Aitzorroztz eguna

Mendi saileko irteerak

Apirilak 5: Sagardotegira irteera

Apirilak 17-18: Eskalatzera

Maiatzak 1-3: Pirinotara, Tallon ingurura.



Duela 45 bat urte Murumendin.

Zutik: Carmen Villar, Jesus Badiola, M^a Jesus Armendariz, Jose M^a Eraña, M^a Luisa Biteri, Milagros Uribe-Etxebarria, M^a Karmen Oianguren.

Eserita: Nieves Agirre, M^a Eugeni Armendariz, Eli Badiola, Josune Iregi eta Conchita Errasti.

LAGUNDU ZE BARRI EGITEN
Asteazkenetan 7retan
Polikiroldegian



Barandiarán

OINETAKOAK

Arana, 19 • Tfnoa: 943 794970



Aingeru Ibiltokia, z/g.
 Tfnoa.: 715061

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

REPARACIONES LENIZ, C.B.



ALTUNA

Harategia

Etxean hazitako okela

San Pedro, 3 • Tfnoa. 943 714104
 HARATEGIA • Tfnoa. 943 714464



**HARATEGI
 URDAITEGI**

Gastañadui, 15
 Tf. 943 715197